**LASARTE-ORIAKO UDALA**

IRAGARPENA, Koordinazioko, Asistentzia Sozio-Sanitarioko, Asistentzia Sozio-Kulturaleko eta Harreragintzako zerbitzuei dagokienez Atsobakar Zahar-Egoitza kideatzeko zerbitzuak kontratatzeko LEHIAKETA. 9355

IRAGARPENA, Koordinazioko, Asistentzia Sozio-Sanitarioko, Asistentzia Sozio-Kulturaleko eta Harreragintzako zerbitzuei dagokienez Atsobakar Zahar-Egoitza Kudeatzeko udal zerbitzuak kontratatzeko lehiaketarako Baldintza Juridiko, Tekniko eta Ekonomiko-Administratiboen Pleguak onetsi direlakoaren berri emateko dena. 9356

**AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA**

ANUNCIO del Concurso para contratar el servicio municipal de Gestión de la Residencia Atsobakar en lo concerniente a servicios de Coordinación, Asistencia Socio-Sanitaria, Asistencia Socio-Cultural y Recepción. 9355

ANUNCIO de la aprobación de las Bases y Pliegos de Condiciones que han de surgir efecto en el Concurso para contratar el servicio municipal de Gestión de la Residencia Atsobakar en lo concerniente a los Servicios de Coordinación, Asistencia Socio-Sanitaria, Asistencia Socio Cultural y Recepción. 9356

## Beste Iragarpen Ofizial Batzuk

**HERRIZAINGO SAILA**

IRAGARPENA, Miren Amaia Lizaur Mendiola andreari, berak jarritako administrazio-erreklamazioa ezetsiz, Herrizaingo sailburuaren 1994ko otsailaren 28ko Agindua jakinarazteko dena. 9357

IRAGARPENA, José A. Landaribar Olayeni, bere ibilgailuari eragindako kalteak ordaintzea onartzen duen 1994ko martxoaren 15eko Agindua jakinarazteko dena. 9358

## Otros Anuncios Oficiales

**DEPARTAMENTO DE INTERIOR**

ANUNCIO por el que se notifica a Dña. Miren Amaia Lizaur Mendiola la Orden de 28 de febrero de 1994 del Consejero de Interior por la que se desestima, la reclamación administrativa interpuesta por la misma. 9357

ANUNCIO por el que se notifica a D. José A. Landaribar Olayen la Orden de 15 de marzo de 1994 del Consejero de Interior por la que se procede a la indemnización de los daños causados en su vehículo. 9358

# Xedapen Orokorrak

### HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

### 2826

216/1994 DEKRETUA, ekainaren 21ekoa, erabilitako olioa Euskal Autonomi Elkartean kudeatzea arautzeko dena.

Maiatzaren 14ko 20/1986 Legeak, hondakin pozoindun eta arriskutsuei dagokienez oinarrizkoa denak, bere erabiltze–eremuaren barruan sarturik dauden izaera horretako gaien edo materien zerrendan ikusten ditu erabilitako olio mineralak edo sintetikoak eta horien artean sartzen ditu ura olioarekin nahasia eta emultsioak. Bestalde, erabilitako olioak kudeatzea arautzeko den 1989ko otsailaren 28ko Agindua, arlo hori estatu mailan arautzen ari zen, hondakin mota hori ekoizteak eta kudeatzeak ezaugarri bereziak baititu.

Erabilitako olioa kudeatzeari irtenbide berriak eta hobeak bilatzen sakondu beharrak eta Euskal Autonomi Elkartearen eremuan hondakin horiek sortzeko eta

# Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE URBANISMO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

### 2826

DECRETO 216/1994, de 21 de junio, por el que se regula la gestión del aceite usado en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley 20/1986 de 14 de mayo, Básica de Residuos Tóxicos y Peligrosos contemplaba entre la relación de sustancias o materias de este carácter incluidas en su ámbito de aplicación a los aceites usados minerales o sintéticos incluyendo las mezclas agua-aceite y las emulsiones. Por otro lado, la Orden de 28 de febrero de 1989 por la que se regula la gestión de aceites usados venía a completar la regulación estatal en este área, dadas las especificidades que caracterizan tanto a la producción como a la gestión de este tipo de residuos.

La necesidad de ahondar en la búsqueda de nuevas y mejores soluciones a la gestión del aceite usado y las concretas características de las actividades de produc-

kudeatzeko iharduketek dituzten ezaugarri berezi zehatzek ordea, egun indarrean dauden arauei garapen berri bat ematea behartzen dute.

Erabilitako olioa tratatzerakoan lehentasunen araubide bat ezartzea, bere azken tratamenduaren egokitasuna egiaztatu ahal izateko, erabilitako olioaren ezaugarri fisiko eta kimikoak aurretik egiaztatu beharra eta erabilitako olioa garraiatu eta jasotzen duten garraiolarien erregistroa sortzea dira, besteak beste, dekretu honen oinarrizko norabideak, azaldutako helburu horiek lortzera bideratuak hain zuzen.

Ondorioz, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1994ko ekainaren 21ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Xedea.

Erabilitako olioak dituen ezaugarri berezien arabera, olio horren azken zertarako egoki bat ematera bideratutako iharduketen multzoa arautuko duen erregimen juridiko bat ezartzea da dekretu honen xedea.

*2. atala.*– Definizioak.

Dekretu hau erabiltzerakoan, honela ulertuko dira honako hauek:

Erabilitako olioa: edozein industri-olio edo lubrikatzailea, base mineral edo sintetikoa duena, hasiera batean eman zitzaion xederako ezegoki bilakatu dena.

Zehazki eta arau honetan bilatzen den ihardunbidearen ondorioetarako, automozioko olio lubrikatzailea, karterreko olio industriala, olio hidraulikoa, tenplaketakoa, termikoa eta marinoa joko dira joko dira erabilitako oliotzat.

Kudeatzea: erabilitako olioari giza osasuna babestuko, ingurugiroa gordeko eta baliabide naturalak iraunaraziko dituela bermatuko duen azken destinoa ematera bideratutako iharduketen multzoa. Jasotzeko, gordetegiratzeko, aurretratamendurako eta tratamendurako ekinzak hartzen ditu bere baitan.

Aurretik jasotzea: norbanakako erabiltzaileek erabilitako olioa, aurretiko jasotzaileenganatzea ekarriko duten iharduketen multzoa.

Jasotzea: erabilitako olioa ekoizleengandik eta aurretiko jasotzaileengandik kudeatzaileenganako eta kudeatzaileek elkarren arteko bestetaratzea ekarriko duen iharduketen multzoa.

Gordetegiratzea: erabilitako olioa aldi baterako gordetzea, olio hori desegitea edo horretaz baliatzea ekarriko ez duena.

Aurretratamendua: erabilitako olioari, bere ezaugarri fisiko edo kimikoak aldatuz, tratamendurako erraztasun handiagoa ematen diona.

Tratamendua: erabilitako olioak giza ossasunarentzat, baliabide naturalentzat eta ingurugiroarentzat izan ditzan pozointasun eta gainerako ezaugarri kalte-

ción y gestión de estos residuos en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco obligan, sin embargo, a un nuevo desarrollo de la normativa actualmente en vigor.

El establecimiento de un régimen de prioridades en el tratamiento del aceite usado, la exigencia de una comprobación previa de las características físico-químicas del aceite usado a fin de verificar la adecuación de su tratamiento final, la creación de un registro de transportistas y de prerrecogedores de aceite usado constituyen, entre otras, las líneas básicas del presente Decreto destinadas al logro de los objetivos expuestos.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 21 de junio de 1994

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Objeto.

Es objeto del presente Decreto el establecimiento del régimen jurídico regulador del conjunto de actuaciones tendentes a dar al aceite usado el destino final más adecuado de acuerdo con sus características específicas.

*Artículo 2.*– Definiciones.

A efectos de la aplicación del presente Decreto se entenderá por:

Aceite Usado: todo aceite industrial o lubricante, con base mineral o sintética, que se haya vuelto inadecuado para el uso que se le hubiere asignado inicialmente.

En particular y a efectos de la aplicación del régimen jurídico contemplado en la presente norma se considerará aceite usado el aceite lubricante de automoción, el aceite industrial de cárter, el aceite hidráulico, de temple, térmico y marino.

Gestión: Conjunto de actividades encaminadas a dar al aceite usado el destino final que garantice la protección de la salud humana, la conservación del medio ambiente y la preservación de los recursos naturales. Comprende las operaciones de recogida, almacenamiento, pretratamiento y tratamiento.

Prerrecogida: Conjunto de operaciones que permitan traspasar el aceite usado de los usuarios individuales a los prerrecogedores.

Recogida: Conjunto de operaciones que permitan traspasar el aceite usado de los productores y prerrecogedores a los gestores o de éstos entre sí.

Almacenamiento: Depósito temporal de aceite usado que no suponga ninguna forma de eliminación o aprovechamiento del mismo.

Pretratamiento: Operación que mediante la modificación de las características físicas o químicas del aceite usado persigue una mayor facilidad para su tratamiento.

Tratamiento: Operación cuya finalidad sea reducir o anular la toxicidad y demás características peligrosas del aceite usado para la salud humana, recursos natura-

garriak gutxitzeko edo deusezteko den ekintza. Tratamenduko ekintza bezala bereziki iharduketa hauek joko dira, erabilitako olioa berreskuratzea, bereoneratzea eta baliogabetzea.

Berreskuratzea: Erabilitako olioan dauden lehengaiez eta/edo energiaz baliatu ahal izatea ekarriko duen tratamendua.

Bereoneratzea: erabilitako olioa errefinatuz, bereziki kutsagarriak, ekoizki oxidagarriak eta olio horrek izan ditzan gehigarriak baztertuz, oinarrizko olioa lortzea ekar dezan edozein prozedimendu.

Baliogabetzea: erabilitako olioan dauden baliotakoren bat probetxatzea ekarriko ez duen edozein tratamendu.

Ekoizlea: pertsona fisiko edo juridikoa, industria edo iharduketa baten titular bezala, erabilitako olioa sortu edo inportatzen duena. Ondorengo ataletan xedatutakoaren kaltetan izan gabe, kontsumorako bakarkako erabiltzaile modura bakarkako iharduketa baten ondorioz erabilitako olioa sortzen duena ez da ekoizletzat joko.

Ekoizle handia: erabilitako olioa urtean 20 tn.tik gora sortzen duen ekoizlea.

Ekoizle txikia: erabilitako olioa urtean 20 tn. edo gutxiago sortzen duen ekoizlea.

Bakarkako erabiltzailea: kontsumoko bakarkako iharduketa baten ondorioz sortzen duena erabilitako olioa. Batez ere automoziozko ibilgailuaren erabiltzaile edo jabea joko da bakarkako erabiltzailetzat.

Kudeatzailea: erabilitako olioa ekoiztu edo ez, olio hori kudeatzeko iharduketetako edozein egiteko baimena duen pertsona fisiko edo juridikoa.

Aurretiko jasotzailea: erabilitako olioaren aurretiko jasotze-iharduketak burutzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa. Batez ere tailerrak, olioztatzeko tegiak edo garajeak edo beren instalazioetako zati bat erabilitako olioaren aurretiko jasotzea egiteko erabiltzen dituzten merkataritza zentruak joko dira aurretiko jasotzailetzat edo, beharrezko diren baimenez, automozioko olioa manipulatzeko edo aldatzeko eragiketak burutzen direneko beste edozein instalazio, ekintza horiek bakarkako erabiltzaileek berak burutzen dituztenean ere bai.

Jasotzailea: erabilitako olioa eskuz aldatzeko xedez, jasotzeko ihardunak egiten dituen pertsona fisiko edo juridikoa, ekoizleengandik eta aurretiko jasotzaileengandik beste kudeatzaileengana edo kudeatzaile horien artean.

*3. atala.–* Sartzen ez direnak.

Dekretu honen erabiltze-eremutik kanpo geratzen dira:

a) Landare-olioak.

b) Olio eta koipeen ontzietakoa edo olio horiek banatzeko erabiltzen direnetakoa.

c) Konpresoreak purgatzetik ateratzen dena.

les y medio ambiente. Particularmente se considerarán operaciones de tratamiento la recuperación, la regeneración y la eliminación del aceite usado.

Recuperación: Tratamiento cuyo objeto es permitir el aprovechamiento de las materias primas y/o de la energía contenida en el aceite usado.

Regeneración: Cualquier procedimiento que permita producir aceite de base mediante un refinado de aceite usado, en particular, mediante la separación de los contaminantes, los productos de la oxidación y los aditivos que contengan dicho aceite.

Eliminación: Todo tratamiento en relación con el aceite usado que no implique aprovechamiento alguno de los recursos contenidos en el mismo.

Productor: Persona física o jurídica que, como titular de industria o actividad, genera o importa aceite usado. Sin perjuicio de lo dispuesto en los siguientes artículos no se considerará como productor al usuario individual que genere aceite usado como consecuencia de una actividad individual de consumo.

Gran Productor: El productor de aceite usado en cantidad superior a 20 Tn/año.

Pequeño Productor: El productor de aceite usado en cantidad igual o inferior a 20 Tn/año.

Usuario Individual: El generador de aceite usado como consecuencia de una actividad individual de consumo. Particularmente se considerará usuario individual al usuario o propietario de vehículo de automoción.

Gestor: Persona física o jurídica autorizada para realizar cualquiera de las actividades de gestión del aceite usado, sea o no productor del mismo.

Prerrecogedor: Persona física o jurídica que realiza actividades de prerrecogida de aceite usado. Particularmente se considerarán prerrecogedores a los talleres, estaciones de engrase o garajes y a los centros comerciales que destinen parte de sus instalaciones a la prerrecogida de aceite usado o a cualquier otra instalación en la que con las debidas autorizaciones se lleven a efecto operaciones de manipulación o sustitución de aceite de automoción, incluso cuando estas operaciones se lleven a efecto por los propios usuarios individuales.

Recogedor: Persona física o jurídica que realiza actividades de recogida de aceite usado en orden a traspasar el mismo de los productores y prerrecogedores a otros gestores o de éstos entre sí.

*Artículo 3.–* Exclusiones.

Quedan excluidos del ámbito de aplicación del presente Decreto:

a) Los aceites vegetales.

b) Los aceites y grasas de arquetas y otros sistemas separadores de los mismos.

c) Los aceites de purgas de compresores.

d) Erregaien eta beste ur hidrokarburatuen tankeetako hondoetakoak.

e) Berotako ijezketako ur oliotsuak.

f) Hozkarri erdi-sintetikoak eta sintetikoak, halaber emultsioak eta esegidurak (ebaketa-olioak).

g) Animali-olioak eta animali-koipeak.

h) Elektra-aldagailu eta beste elektra-gailuetan dielektriko bezala erabilitako olioak.

i) Parafina fabrikatzetik datozen olio zuriak.

j) Harrikatza lortzetik datozen olio arinak.

*4. atala.–* Erabilitako Olioaren Titularitatea.

1. Erabilitako olioak beti izango du titular bat eta izaera hori ekoizleari, aurretiko olio-jasotzaileari edo baimendutako kudeatzaileari dagokio.

2. Erabilitako olioaren titulartzat joko dira baita ere 2. atalean zehaztutako bakarkako erabiltzaileak.

*5. atala.–* Debekuak.

1. Erabilitako olioa daukan edo horren titular den edozein pertsona fisiko edo juridikoak, hori egoki kudeatu beharra du, hori hartzen duten gainerakoei kutsadura pasatzea ekidinez.

2. Aurreko idazati horren ondorioetarako, ondorengo hauek debekaturik gelditzen dira:

a) Azaleko uretan, barnekoetan, lurpekoetan, lurralde–itsasoko edozein aldetan eta estolderia-sistemetan edo hondakin-uren irteeretan egindako erabilitako olioaren isurketa guztiak.

b) Eragin kaltegarriak dituen edozein gordetegi edo erabilitako olioa lurrean isurtzea, halaber, erabilitako olioaren tratamendutik sortzen diren hondakinak kontrolik gabe isurtzea.

c) Indarrean dauden legeetan ezarritako mailatik gora dagoen egurats-kutsadura dakarren erabilitako olioaren edozein tratamendu.

*6. atala.–* Lehentasunen araubidea.

1. Teknika, ekonomia eta antolaketazko baldintzek galerazten ez badute, erabilitako olioaren bereoneratze tratamendua lehentasunduntzat joko da.

2. Erabilitako olioaren bereoneratzea komeni ez denean eta berreskuratze hori teknika, ekonomi eta antolaketa aldetik egingarria denean, olio hori berreskuratzea ingurugiroarekiko onargarri diren baldintzetan egin dadin, beharrezko diren neurriak hartuko dira.

3. Aurreko idazatian azaldutakoaren ondorioetarako, emankortasun hobea edo energi probetxamendu handiagoa dakarten berreskuratze tratamenduak lehentasunduntzat joko dira.

Xede horretarako, bereoneratze-instalazioek lehentasunduntzat joko dira energia berreskuratzeko direnekiko.

d) Los fondos de tanques de combustibles y otras aguas hidrocarburadas.

e) Las aguas aceitosas de laminación en caliente.

f) Las taladrinas semisintéticas y sintéticas, así como emulsiones y suspensiones (aceites de corte).

g) Los aceites y grasas animales.

h) Los aceites utilizados como dieléctricos en transformadores y otros aparatos eléctricos.

i) Los aceites blancos procedentes de la fabricación de parafina.

j) Los aceites ligeros procedentes de la obtención de hulla.

*Artículo 4.–* Titularidad del Aceite Usado.

1. El aceite usado tendrá siempre un titular, cualidad que corresponderá al productor, al prerrecogedor de aceite o al gestor autorizado.

2. También se considerarán titulares del aceite usado a los usuarios individuales definidos en el artículo 2.

*Artículo 5.–* Prohibiciones.

1. Toda persona física o jurídica que posea o sea titular de aceite usado está obligada a destinar el mismo a una gestión correcta, evitando trasladar la contaminación a los diferentes medios receptores.

2. A los efectos del párrafo anterior queda prohibido:

a) Todo vertido de aceite usado en aguas superficiales, interiores, en aguas subterráneas, en cualquier zona del mar territorial y en los sistemas de alcantarillado o evacuación de aguas residuales.

b) Todo depósito con efectos nocivos o vertido de aceite usado sobre el suelo, así como todo vertido incontrolado de residuos derivados del tratamiento del aceite usado.

c) Todo tratamiento de aceite usado que provoque una contaminación atmosférica superior al nivel establecido en la legislación vigente.

*Artículo 6.–* Régimen de prioridades.

1. Siempre que las condiciones de orden técnico, económico y de organización lo permitan se establece como prioritario el tratamiento de regeneración del aceite usado.

2. Cuando no proceda la regeneración del aceite usado se adoptarán las medidas necesarias para que la recuperación del mismo se realice en condiciones medioambientalmente aceptables y siempre que dicha recuperación sea factible desde el punto de vista técnico, económico y de organización.

3. A los efectos de cumplimentar lo expuesto en el apartado anterior se establecerán como prioritarios los tratamientos de recuperación que supongan un mejor rendimiento o mayor aprovechamiento energético.

A tal fin se establecerán como prioritarias las instalaciones de cogeneración frente a otras de recuperación energética.

4. Erabilitako olioaren ez bereoneratzea ez eta berreskuratzea ere egoki ez direnean, bere baliogabetzea arriskurik gabe bermatzeko beharrezko neurriak hartuko dira.

*7. atala.*– Erabilitako olioaren ekoizleen betebeharrak.

1. Dekretu honen 5. atalean jasotako aginduak bete beharko dituzte erabilitako olioaren ekoizleek, beraiek, edo baimendutako kudeatzailari olioa entregatuz.

2. Dekretu honen 2. atalean zehaztutako bakarkako erabiltzaileek ere 5. atalaren aginduei loturik gelditzen dira.

3. Halaber, erabilitako olioaren ekoizle handiek, olio horren ezaugarri fisikoak eta kimikoak egiaztatu ondoren eta dekretu honen 18. eta 19. ataletan xedatutakoaren arabera, baimendutako kudeatzaileari entregatzera behartuak egongo dira. 14. atalean aipatutako jasotzaileen bidez egin ahal izango dutela erabilitako olioaren bestetaratze hori eta, jasotzaile horiek, erabilitako olioaren titularitatea ez dute izango kasu horretan edo bestetaratze-ekintza horretarako baimendutako edozein garraiatzaile baten bidez egin ahal izango da.

4. Erabilitako olioaren ekoizle txikiak, olio hori, dekretu honen 14. atalean adierazitako jasotzaileei entregatzeko obligazioa dute eta jasotzaile horiek, baimendutako kudeatzaileari entregatu aurretik, olio horren ezaugarri fisiko eta kimikoen egiaztapena egingo dute dekretu honen 18. eta 19. ataletan adierazitakoarekin bat eginik.

5. Erabilitako olioaren ekoizleek, bosgarren ataleko lehenengo idazatian xedatutakoa betetzearen ondorioetarako, ondorengo hauetara beharturik gelditukodira:

a) Beren instalazioetatik sortutzko olioa baldintza egokitan pilatzera, poliklorobifeniloekin edo beste hondakin pozointsu edo arriskutsuekin, halaber urarekin edo beste hondakin oliotsuekin nahastea galeraziz.

b) Jasoa izango den arte erabilitako olioa iraunarazteko gai diren instalazioak edukitzera, eta, jasotze hori egiteko enkargatuak dauden ibilgailuentzako sarbidea dutelarik.

c) Erabilitako olio hori, jasotzeko baimena duen pertsonari entregatzera edo, behar den baimenez, horren garraioa norberak egitera baimena duen kudeatzaileari entregatu arte edo, dagokion baimenez, berak egitea kudeatze hori.

*8. atala.*– Ekoizleen beste betebeharrak.

1. Erabilitako olioak kudeatzeari buruzko 1989ko otsailaren 28ko Aginduan adierazten diren betebeharrei loturik gelditzen dira erabilitako olioaren ekoizleak eta, Hondakin Pozointsu eta Arriskutsuetarako oinarrizkoa den maiatzaren 14ko 20/1986 Legean eta uztailaren 20ko 833/1988 Erregeren Dekretuan hondakin pozointsu eta arriskutsuen ekoizleentzat adierazitakoei.

2. Aurreko lerroaldian azaldutakoaren esanera, beren ihardunaren garapena babestuko duen baimena lortzeko eta urteroko aitorpena aurkezteko obligazioari loturik gelditukodira ekoizleak eta beren iharduketen erregis-

4. Cuando no proceda la regeneración ni la recuperación del aceite usado, se adoptarán las medidas necesarias para garantizar sin riesgo su eliminación.

*Artículo 7.*– Obligaciones de los productores de aceite usado.

1. Los productores de aceite usado deberán cumplir las prescripciones recogidas en el artículo 5 del presente Decreto, por sí o mediante la entrega del aceite a gestor autorizado.

2. Quedan sometidos, asimismo, a las prescripciones del artículo 5, los usuarios individuales definidos en el artículo 2 del presente Decreto.

3. Los grandes productores de aceite usado estarán obligados, asimismo, a su entrega a gestor autorizado previa comprobación de las características físico-químicas del mismo y de conformidad con lo dispuesto en los artículos 18 y 19 de presente Decreto. El traslado del aceite usado podrá llevarse a cabo por los recogedores contemplados en el artículo 14, quienes no adquirirán en este caso la titularidad del aceite usado, o a través de cualquier tipo de transporte autorizado para el desarrollo de tal actividad.

4. Los pequeños productores de aceite usado estarán obligados a la entrega del mismo a los recogedores contemplados en el artículo 14 de este Decreto, quienes con carácter previo a su envío a gestor autorizado someterán el aceite usado a la comprobación de sus características físico-químicas de conformidad con lo previsto en los artículos 18 y 19 del presente Decreto.

5. Los productores de aceite usado, a efectos de cumplimentar lo dispuesto en el apartado primero del artículo quinto, quedarán obligados a:

a) Almacenar el aceite usado que provenga de sus instalaciones en condiciones satisfactorias, evitando las mezclas con policlorobifenilos o con otros residuos tóxicos y peligrosos, así como con agua y otros residuos no oleaginosos.

b) Disponer de instalaciones que permitan la conservación del aceite usado hasta su recogida y que sean accesibles a los vehículos encargados de efectuarla.

c) Entregar el aceite usado a persona autorizada para la recogida o realizar por su cuenta, con la debida autorización, el transporte hasta la entrega a gestor autorizado o realizar ellos mismos esa gestión mediante la oportuna autorización.

*Artículo 8.*– Otras obligaciones de los productores.

1. Los productores de aceite usado quedan sometidos a las obligaciones que para ellos se contemplan en la Orden de 28 de febrero de 1989 sobre Gestión de Aceites Usados y a las contempladas para los productores de residuos tóxicos y peligrosos en la Ley 20/1986 de 14 de mayo, Básica de Residuos Tóxicos y Peligrosos y en el Real Decreto 833/1988 de 20 de julio.

2. De acuerdo con lo expuesto en el párrafo anterior, los productores quedarán sometidos a la obligación de obtener una autorización que ampare el desarrollo de su actividad, a presentar una declaración anual, a la obli-

troa gordetzeko obligazioari eta kontrol eta jarraipenerako araubideari.

3. Dekretu honen 2. atalean zehaztu diren erabilitako olioaren ekoizle txikiak izan eta izaera hori uztailaren 20ko 833/1988 Erregeren Dekretuan ezarritako eskakizunak bete ondoren lortu dutenak direnean, ekoizle-baimena lortzeko eta urteko deklarazioa aurkezteko obligaziotik kanpo geratzen dira.

*9. atala.–* Aurretiko jasotzaileen betebeharrak.

Erabilitako olioa aurretiko jasotzailearen industri edo merkataritza iharduketaren barruan bakarkako erabiltzaileari zerbitzu bat ematetik datorrenean, erabiltzaileengandik datorren erabilitako olioaren kargua hartu beharra daukate jasotzaile horiek, eta, erabilitako olio hori, jasotzeko baimena duen pertsona bati entregatu behar zaio.

*10. atala.–* Aurretiko jasotzaileen erregistroa.

1. Erabilitako olioa aurretik jasotzeko ihardunak fiskalizatzea egiteko, Euskal Autonomi Elkarteko ingurugiro-organoak, erabilitako olioaren aurretiko jasotzaileen erregistro bat eratuko du eta bertan inskribatu beharko dira erabilitako olioaren aurretiko jasotzelanak Euskal Autonomi Elkartean egiten dituzten garajeak, koipezte-tegiak eta tailerrak.

2. Halaber, erabilitako olioaren aurretiko jasotzeiharduketak gauzatzen dituzten merkataritza zentruak edo, behar diren baimenez automozioko olioen manipulazio edo aldatze lanak egiten dituen beste edozein zentru ere erregistro horretan inskribatuko dira, bai eta iharduketa horiek bakarkako erabiltzaileak berak burutzen dituztenean ere.

3. Ingurugiro-organoak, zuzenean inskribatuko ditu aurretiko jasotzaileak dagozkien kontrol eta jarraipenerako agirien bidez horretarako eratuko den erregistroan, erabilitako olioaren aurretiko jasotze-ihardunak burutzen direnaren agiribidezko ziurtasunik badagoenean.

*11. atala.–* Ontziratzea eta etikitatzaea.

Erabilitako olioaren aurretiko jasotzaileek, erabilitako olio hori baimendutako jasotzaileei entregau aurretik, ondorengo arau hauen arabera ontziratu eta etiketatu beharko dute olio hori:

a) Ontziak eta ontzi horien itxiturak, inolako galerarik ez izateko pentsatuak eta eginak izan beharko dute eta barruan dauzkaten materialeek ez erasotzeko moduko gaiez eginak eta barruko material horrekin konbinazio arriskutsurik ez izateko modukoak.

b) Ontziak eta beren itxiturak, sendoak eta iraunkorrak izango dira, beharrezko diren erabilketei segurtasunez erantzuteko modukoak eta baldintza onetan eta egiturazko akatsik gabe eta itxurazko isurketarik gabe iraungo dute.

c) Erabilitako olioa edukiko duten ontziek, argi eta garbi eta ezabagaitzeko eran etiketatuak egon beharko dute .

Ondorengo hauek agertu beharko dute etiketan:

gación de mantener un registro de sus actividades y al régimen de control y seguimiento.

3. Quedan excluidos de la obligación de obtención de autorización de productor y de la presentación de la declaración anual, los pequeños productores de aceite usado definidos en el artículo 2 del presente Decreto y que adquieran este carácter previo cumplimiento de los requisitos establecidos en el Real Decreto 833/1988 de 20 de julio.

*Artículo 9.–* Obligaciones de los prerrecogedores.

Los prerrecogedores deberán obligatoriamente hacerse cargo del aceite usado procedente de los usuarios individuales cuando dicho aceite se genere como consecuencia de la prestación de un servicio al usuario individual dentro del marco de su actividad industrial o comercial, debiendo entregar el aceite usado a persona autorizada para la recogida.

*Artículo 10.–* Registro de prerrecogedores.

1. Con objeto de proceder a una fiscalización de las actividades de prerrecogida de aceite usado, el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco constituirá un registro de prerrecogedores de aceite usado en el que deberán inscribirse los garajes, estaciones de engrase y talleres que en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco realicen operaciones de prerrecogida de aceite usado.

2. Asimismo, serán objeto de inscripción en el citado registro los centros comerciales que realicen actividades de prerrecogida de aceite usado o cualquier otra instalación en la que con las debidas autorizaciones se lleven a efecto operaciones de manipulación o sustitución de aceite de automoción, incluso cuando estas operaciones se lleven a efecto por los propios usuarios individuales.

3. El órgano ambiental procederá a inscribir directamente a los prerrecogedores de aceite usado en el registro que se constituya a tal efecto siempre y cuando exista constancia documental, a través de los documentos de control y seguimiento pertinentes, de que lleven a cabo operaciones de prerrecogida de aceite usado.

*Artículo 11.–* Envasado y etiquetado.

Los prerrecogedores de aceite usado, con carácter previo a la entrega del mismo a los recogedores autorizados, deberán envasar y etiquetar el aceite usado de conformidad con las siguientes normas:

a) Los envases y sus cierres estarán concebidos y realizados de forma que se evite cualquier pérdida y construidos con materiales no susceptibles de ser atacados por el contenido, ni de formar con éste combinaciones peligrosas.

b) Los envases y sus cierres serán sólidos y resistentes para responder con seguridad a las manipulaciones necesarias y se mantendrán en buenas condiciones, sin defectos estructurales y sin fugas aparentes.

c) Los recipientes o envases que contengan aceite usado deberán estar etiquetados de forma clara, legible e indeleble.

En la etiqueta deberá figurar:

– Hondakin pozointsu eta arriskutsuetarako oinarrizkoa den maiatzaren 14ko 20/1986 legea bete arazteko den arautegiaren I. eraskinean, erabilitako olioentzat ezarritako identifikaziorako kodea.

– Titularraren helbidea eta telefonoa.

– Arriskuen izaera, eta, hori adierazteko, aipatutako arautegiko II. eraskinean ageri diren piktogramak erabili beharko dira ontzietan eta arautegi horren 14.3 atalean pozointzu eta kaltegarrientzako eskatzen den eran. Ondorio horietarako, aipatutako xedapen horren 14.6. atalean xedatutakoa ere kontutan hartu beharko da.

*12. atala.*– Kontrol-araubidea.

Erabilitako olioak kudeatzeari buruzko 1990eko ekainaren 13ko Aginduan ekoizleentzako eta kudeatzaileentzako agintzen zen kontrol eta jarraipenerako araubideari loturik gelditzen dira erabilitako olioaren aurretiko jasotzaileak.

*13. atala.*– Aurretiko jasotzeko gordetegiratze baldintzak.

1. Erabilitako olioa aurretiko jasotzaileen instalazioetan gordetegiratzea baldintza egokitan egin beharko da eta hiru hilabetetik gorakoa ez den epealdi batean zehar.

2. Erabilitako olioa jasotzen den arteraino kontserbatzeko eta jasotzea egiteko enkargatuak dauden ibilgailuak bertaratzeko gai diren instalazioak eduki behar dituzte aurretiko jasotzaileek .

3. Erabilitako olioa aurretik jasotzekoan, ondorengo arau hauek hartuko dira kontutan:

a) Erabilitako olioa ezingo da nahasi poliklorobifeniloekin ez eta beste hondakin pozointsu edo arriskutsuekin, halaber, urarekin eta beste hondakin oliotsuekin ere.

b) PCB/PCTko 50 p.p.m. baino gehiago duen erabilitako olioari, horien arauteri espezifikoa atxikiko zaio eta pertsonekiko eta ingurugiroarekiko kalterik ez sortzeko moduan kudeatu beharko da.

4. Aurretiko jasotzaileek egindako gordetegiratzea, ez da kudeatze iharduna bezala joko aurreko xedapen hori erabiltzearen ondorioetarako, atal honetan agindutakoarekin bat eginik gauzatzen bada behintzat.

*14. atala.*– Erabilitako olioa jasotzea.

1. Erabilitako olioa, aurretiko jasotzaileen instalazioetatik eta ekoizle txikien zentruetatik jasotzeko iharduketak gero kudeatzaileari entregatzeko, Euskal Autonomi Elkarteko ingurugiro-organoak horretarako baimendu dituen pertsona fisiko edo juridikoek egin beharko dituzte.

2. Hondakin Pozointsu eta Arriskutsuetarako oinarrizkoa den maiatzaren 14ko 20/1986 Legea gauzatzeko den arautegia onartzeko den uztailaren 20ko 833/1988 Erregeren Dekretuan agindutako betebehar eta baldintzekin bat eginik emango da erabilitako olioa jasotzeko iharduna garatzeko aurretiko administrazio-baimena, Euskal Autonomi Elkarteko ingurugiro-organoak emandakoa.

– El código de identificación del aceite usado establecido en el Anexo I del Reglamento para la ejecución de la Ley 20/1986, de 14 de mayo, Básica de Residuos Tóxicos y Peligrosos.

– El nombre, dirección y teléfono del titular.

– La naturaleza de los riesgos, para cuya indicación deberán usarse en los envases los pictogramas que figuran en el anexo II del Reglamento citado y en la forma exigida en el artículo 14.3. del mismo, para: Tóxico y Nocivo. A estos efectos se tendrá en cuenta lo dispuesto, asimismo, en el artículo 14.6. de la mencionada disposición.

*Artículo 12.*– Régimen de control.

Los prerrecogedores de aceite usado quedan sometidos al régimen de control y seguimiento previsto para los productores y gestores en la Orden de 13 de junio de 1990 sobre Gestión de Aceites Usados.

*Artículo 13.*– Condiciones del almacenamiento en la prerrecogida.

1. El almacenamiento del aceite usado deberá realizarse en las instalaciones de los prerrecogedores en condiciones satisfactorias y por un período no superior a tres meses.

2. Los prerrecogedores deberán disponer de instalaciones que permitan la conservación del aceite usado hasta su recogida y que sean accesibles a los vehículos encargados de efectuar la citada recogida.

3. En la prerrecogida de aceite usado se tendrán en cuenta las siguientes normas:

a) No se podrá mezclar el aceite usado con policlorobifenilos ni con otros residuos tóxicos y peligrosos, así como con agua y otros residuos no oleaginosos.

b) Al aceite usado que contenga más de 50 p.p.m. de PCB/PCT le será de aplicación la regulación específica de éstos y deberá gestionarse de forma que no produzca perjuicios para las personas y el medio ambiente.

4. A efectos de la aplicación de la presente disposición no se considerará como actividad de gestión el almacenamiento efectuado por los prerrecogedores siempre que el mismo se realice de acuerdo con lo establecido en este artículo.

*Artículo 14.*– Recogida de aceite usado.

1. La actividad de recogida de aceite usado desde las instalaciones de los prerrecogedores y desde los centros de los pequeños productores para su posterior entrega a gestor deberá llevarse a cabo por las personas físicas o jurídicas que a tal efecto sean autorizadas por el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. La autorización administrativa previa expedida por el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el desarrollo de la actividad de recogida de aceite usado se dictará de conformidad con los requisitos y condiciones establecidos en el Real Decreto 833/1988 de 20 de julio por el que se aprueba el Reglamento para la ejecución de la Ley 20/1986 de 14 de mayo, Básica de Residuos Tóxicos y Peligrosos.

3. Euskal Autonomi Elkarteko ingurugiro-organoak eman dezan erabilitako olioa jasotzeko ihardunerako baimenak, ihardun hori gauzatzeko beharrezko diren betebehar eta baldintza teknikoak ezarriko ditu garraio iharduketarako eta zehazki,dekretu honen 18. eta 19. ataletan adierazitakoarekin bat eginik, erabilitako olio hori bere ezaugarri fisikoak eta kimikoak egiaztatzeari lotu beharrean jartzea.

4. Erabilitako olioa, aurretiko jasotzaileen instalazioetatik gutxienez hiru hilabetetik behineko maiztasunez jasotzea bermatuko dute jasotzaileek.

*15. atala.*– Kontrol-araubidea.

1. Erabilitako olioari emango zaion azken destinoa , bere ezaugarrien arauera, egokiena izango dela bermatu beharko dute jasotzaileek Euskal Autonomi Elkarteko ingurugiro-organoaren aurrean.

2. Erabilitko olioen kudeaketari buruzko 1990ko ekainaren 13ko Aginduan ezarritako kontrol eta jarraipenerako araubideari loturik gelditzen da erabilitako olioa jasotzeko iharduna.

3. Dekretu honen 13.3 atalean adierazten diren arauak kontutan hartu beharko dira erabilitako olioa jasotzeko ihardunean.

*16. atala.*– Erabilitako olioaren kudeaketako beste ihardunak.

1. Hondakin pozointsu eta arriskutsuetarako oinarrizkoa den maiatzaren 14ko 20/1986 Legean eta hori gauzatzeko arautegia onartzeko den uztailaren 20ko 833/1988 Erregeren Dekretuan agindutako baldintzekin bat eginik, erabilitako olioaren gordetegiratzeko, aurre–tratamenduko eta tratamenduko iharduketak gauzatzea, administrazioaren aurretiko baimenari loturik geldit310 da, Euskal Autonomi Elkarteko ingurugiro-organoak emandakoari.

2. Erabilitako olioaren gordetegiratzeko, aurre–tratamenduko eta tratamenduko iharduketetan, dekretu honen 13.3 atalean adierazitakoa kontutan hartu beharko da.

*17. atala.*– Garraiatzailen erregistroa.

Euskal Autonomi Elkarteko ingurugiro-organoak, erabilitako olioaren garraiatzaileen erregistro bat prestatuko du. Erabilitako olioaren garraiatze-iharduketen titularrek, erregistroan beren inskribapena egiteko, beren inskribapen hori eskatuko dute ondorengo agiri hauek aurkeztu ondoren:

a) eskea egiten duen titularraren identifikazio xetasunak.

b) erabilitako olioa garraiatzeko erabili nahi diren ibilgailuen zerrenda.

c) aipatutako ibilgailu horien ezaugarri teknikoak.

d) errepidezko Garraioaren Arautegia betetzearen egiaztagiria.

e) ikuskaritza teknikoaren txartelaren eguneratutako kopia.

*18. atala.*– Erabilitako olioaren analisia.

3. La autorización que para la actividad de recogida de aceite usado dicte el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco establecerá los requisitos y condiciones técnicas precisas para el desarrollo de la misma y para la actividad de transporte y en concreto la obligación de someter el aceite usado a la comprobación de sus características físico-químicas de conformidad con lo previsto en los artículo 18 y 19 del presente Decreto.

4. Los recogedores garantizarán la recogida del aceite usado en las instalaciones de los prerrecogedores con una frecuencia mínima de tres meses.

*Artículo 15.*– Régimen de control.

1. Los recogedores del aceite usado deberán acreditar ante el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco que el destino final del aceite usado sea el más adecuado de acuerdo con sus características.

2. La actividad de recogida de aceite usado queda sometida al régimen de control y seguimiento establecido en la Orden de 13 de junio de 1990 sobre Gestión de Aceites Usados.

3. En la actividad de recogida de aceite usado deberán tenerse en cuenta las normas contempladas en el artículo 13.3. del presente Decreto.

*Artículo 16.*– Otras actividades de gestión de aceite usado.

1. La realización de actividades de almacenamiento, pretratamiento y tratamiento de aceite usado estará sometida a autorización administrativa previa, expedida por el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de conformidad con los requisitos establecidos en la Ley 20/1986 de 14 de mayo, Básica de Residuos Tóxicos y Peligrosos y en el Real Decreto 833/1988 de 20 de julio por el que se aprueba el Reglamento para su ejecución.

2. En las actividades de almacenamiento, pretratamiento y tratamiento de aceite usado deberá tenerse en cuenta lo previsto en el artículo 13.3 del presente Decreto.

*Artículo 17.*– Registro de transportistas.

El órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco procederá a la elaboración de un registro de transportistas de aceite usado. A efectos de su inscripción en el registro, los titulares de actividades de transporte de aceite usado procederán a solicitar su inscripción en el mismo previa presentación de la siguiente documentación:

a) Datos identificativos del titular solicitante.

b) Relación de vehículos que pretendan destinarse al transporte de aceite usado.

c) Características técnicas de los vehículos mencionados.

d) Certificación del cumplimiento del Reglamento de Transporte por Carretera.

e) Copia actualizada de la tarjeta de inspección técnica.

*Artículo 18.*– Análisis del aceite usado.

Jatorria edo helmuga Euskal Autonomi Elkartean duen erabilitako olioaren ezaugarri fisiko eta kimikoak egiaztatzea, baimendutako kudeatzaileak gero emango dion tratamenduari egokitzen zaiola egiaztatzeko, ingurugiro-organoari dagokio.

*19. atala.*– Ingurugiro-organoaren egitekoak.

1. Aurreko atal horretan agindutakoa betetzearen ondorioetarako, ondorengo egiteko hauek dagozkio ingurugiro–organoari:

a) Laginak hartzea eta erabilitako olioari eman beharreko azken kudeaketak eskatzen duen analitika egitea.

b) Erabilitako olioaren ezaugarriak proposatu zen azken tratamenduari egokitzen zaizkion edo ez egiaztatzea.

c) Aurreko lerroaldian azaldutakoa ziurtatzen duen egiaztagiria ematea.

d) Erabilitako olioaren ezaugarrien arabera, hala gertatuz gero, egokiena den azken tratamendurako aholkua ematea.

e) Proposatutako azken tratamendurako ez badira egokiak bere ezaugarriak, erabilitako olio hori geldiaraztea.

2. Honen aurreko idazatiko a) lerroaldian adierazitako egitekoak, dekretu honen eraskinean jasotzen den edukin teknikoari atxikiz gauzatuko dira.

3. Lehenengo idazatiko b) eta c) lerroaldietan jasotako egitekoak, indarrean dauden arauetan agintzen diren kontrol eta jarraipena analizatu eta erabilitako olioaren azken kudeatzailearen instalazioen ezaugarri bereziak aztertu ondoren gauzatuko dira.

*20. atala.*– Ingurugiro-organoaren egitekoak gauzatzea.

Dekretu honen 18. eta 19. ataletan xedatutakoa egoki egiteko, beharrezkoak izan daitezen ekintza guztiak erakunde publiko eta pribatuekin egiteko edo izenpetzeko eskuduntza ematen zaio Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuari.

*21. atala.*– Erabilitako olioaren ezaugarrien egokitasunik eza.

1. Erabilitako olioaren ezaugarriek, proposatutako azken tratamendurako egokitasunik ez izateak, kontrol eta jarraipenerako agirian adierazitako azken kudeatzaileari hori ezin bidali izatea ekarriko du.

2. Aurreko idazatian azaldutako kasuan, kontrol eta jarraipenerako agiri berri bat betetzeko, zazpi eguneko epe bat izango du erabilitako olioaren titularrak eta, epe horrek dirauen artean, olioak geldirik egon beharko du.

3. Aurreko idazatian agindutakoa ez betetzeak eskuduntza emango dio ingurugiro-organoari, uztailaren 20ko 833/1988 Erregeren Dekretuan adierazten den eta, hala behar izanez gero, erantzukizundun titularrari eskatzen zaion fidantza gauzatzeko, erabilitako olioaren azken tratamendua bermatu ahal izateko.

*22. atala.*– Arau-hausteetarako jardunbidea.

Corresponderá al órgano ambiental la comprobación de las características físico-químicas del aceite usado con origen o destino en la Comunidad Autónoma del País Vasco en orden a verificar su adecuación al tratamiento posterior por gestor autorizado.

*Artículo 19.*– Funciones del Órgano ambiental.

1. A efectos de dar cumplimiento a lo dispuesto en el artículo anterior, corresponderán al órgano ambiental las siguientes funciones:

a) Toma de muestras y realización de la analítica requerida en función de la gestión final a otorgar al aceite usado.

b) Verificación sobre la adecuación de las características del aceite usado al tratamiento final propuesto.

c) Emisión de una certificación que acredite lo expuesto en el párrafo anterior.

d) Recomendación, en su caso, del tratamiento final que resulte más adecuado de acuerdo con las características del aceite usado.

e) Inmovilización del aceite usado cuyas características resulten inadecuadas al tratamiento final propuesto.

2. Las funciones contempladas en el epígrafe a) del apartado anterior se ejecutarán con sujeción al contenido técnico que se recoge en el Anexo del presente Decreto.

3. Las funciones recogidas en los epígrafes b) y c) del apartado primero se ejecutarán una vez se haya procedido al análisis del documento de control y seguimiento contemplado en la vigente normativa y al estudio de las características específicas de las instalaciones del gestor final del aceite usado.

*Artículo 20.*– Ejecución de las funciones del órgano ambiental.

En orden a la correcta ejecución de lo dispuesto en los artículos 18 y 19 del presente Decreto se faculta al Consejero de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente para la realización o suscripción, con entidades públicas o privadas, de cuantos actos sean precisos.

*Artículo 21.*– Inadecuación de las características del aceite usado.

1. La inadecuación de las características del aceite usado al tratamiento final propuesto supondrá la imposibilidad de su remisión al gestor final contemplado en el documento de control y seguimiento.

2. En el supuesto contemplado en el apartado anterior, el titular del aceite usado dispondrá de un plazo de siete días para la cumplimentación de un nuevo documento de control y seguimiento, procediéndose durante este período a la inmovilización del aceite.

3. El incumplimiento de la obligación establecida en el apartado anterior facultará al órgano ambiental para la ejecución de la fianza contemplada en el Real Decreto 833/1988 de 20 de julio y exigida en su caso al titular responsable, con objeto de garantizar el tratamiento final más adecuado del aceite usado.

*Artículo 22.*– Régimen de infracciones.

Hondakin pozointsu eta arriskutsuetarako oinarrizkoa den maiatzaren 14ko 20/1986 Legean eta hori gauzatzeko arautegia onartzeko den uztailaren 20ko 833/1988 Erregeren dekretuan ezarritako arau-hausteetarako eta zigorretarako ihardunbidea, dekretu honi dagokionez erabilgarria izango da.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Dekretu hau erabiltzearen ondorioetarako, Euskal Autonomi Elkartearen ingurugiro-organotzat joko da Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko Ingurugiro Sailordetza.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Dekretu hau garatzeko beharrezko izan daitezen xedapen guztiak emateko eskuduntza ematen zaio Hirigintza, Etxebizita eta Ingurugiro sailburuari.

*Bigarrena.*– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadinetik aurrera hirugarren hilabetean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko ekainak 21.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburua,
JOSÉ ANTONIO MATURANA PLAZA.

Será de aplicación, en relación con el presente Decreto, el régimen de infracciones y sanciones establecido en la Ley 20/1986, de 14 de mayo, Básica de Residuos Tóxicos y Peligrosos y en el Reglamento para su ejecución aprobado por Real Decreto 833/1988 de 20 de julio.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

A efectos de la aplicación del presente Decreto se considerará órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco a la Viceconsejería de Medio Ambiente del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta al Consejero de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente para dictar cuantas disposiciones sean precisas para el desarrollo del presente Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor a los tres meses de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de junio de 1994.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente,
JOSÉ ANTONIO MATURANA PLAZA.

# Agintariak eta Langilegoa

## Oposaketak eta Lehiaketak

### ZALDIBARKO UDALA

### 2827

IRAGARPENA, lanaren 1994 urterako eskaintza publikoari dagokiona.

Udalbatzak, 1994ko ekainaren 30ean egin zuen ohiz kanpoko osoko bilkuran, Zaldibarko Udaleko 1994rako lan-eskaintza onartzea erabaki zuen. Hona hemen laneskaintzaren ezaugarriak:

LAN-LEGEPEKO LANGILEGOA

Titulazio-maila: Erdi mailako titulua edo baliokidea.

Lanpostua: Itzultzaile-liburuzain-euskara dinamizatzaile.

Hutsik dauden lanpostuak: bat

Eta hori guztia argitaratzen da Euskal Funtzio

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### AYUNTAMIENTO DE ZALDIBAR

### 2827

ANUNCIO relativo a la aprobación de la Oferta Pública de Empleo para el año 1994.

El pleno de este Ayuntamiento en sesión extraordinaria de 30 de junio de 1994, acordó aprobar la oferta de empleo público para 1994 del Ayuntamiento de Zaldibar en los siguientes términos:

PERSONAL LABORAL

Nivel de titulación: Diplomatura universitaria o equivalente.

Denominación del puesto: Traductor-Bibliotecario-Dinamizador de euskara.

Número de vacantes: una

Lo cual se publica en cumplimiento de lo dispuesto